

# ERRIA ETA OLERKARIA

## Lotura latz barik

Iñoren lotura barik dabilkigu gaur olerkaria, kanta arela ta kanta onela; atsegin yakona kanta oi dau, eta geienik bakar samar. Erri-suspertzaille danarren, bere bakartadetik —lekaide-gelatik sarri— ditzirutzen dau gizartea lan txalogarriz. Leenago etzan orrela; leenago, ba, olerkaria erriagaz artu-emon estuagotan bizi zan; bi baiño ez aita-tzeko, Horazio ta Birgilio, esaterako, errege-jauregiko olerkariak ziran. Au da, aspaldi bateko bertsolari ta poetak euren aldiko gizarteagaz batuago bizi ziran, eta onen kezkek, pentsakerak eta biozkadak bertso bizietan aizatzen zituen.

Geroago, gizartean noizik-bein agertu oi yakuzan artista, jenio, olerkari aundiak batez be, bakartade-zale egin ziran; poz-bitsetan aurkitzen ziran itxura zanez euren gaztelu ixil bakartian. Ez yakuz gitxi agiri, istorian zear, musikari, olerkari ta abar, nausi ta punterengoetatik alan be, zugatz, erreka ta egartziz inguraturiko etxe illun medarrean gau ta egun lanari lotuak. Bakar-giro au egoki ta osasunkor ete yakon olerkariari? Gizarte-barrutia ez ete etorkon egokiago?

Gaur gizarte-zale ta biar bakarti-min ikusi izan dogun olerkariak, egia esan, bearrezkoa dau beti be jentearekiko artu-emon estua. Olerkariak deiez dauka gizartea, ta gizarteak be, zentzu zabal batean beintzat, olerkaria bear bizi dedin. Onela edo: gizartea naiz erri bat, bertsolari edo suspertzaille barik, errez doakigu amil-beera, eta koplaria be bakarrik, entzule ta irakurle barik, nok txaloturik ez ba'leu, txori-sorgin litzakigu, gauaren altzoan uluka.

Milla gauza burutu oi doguz konturatu bage. Au be somatu ta begitan artu barik doakigu sarri: artisten lanetik bizi da gizartea, ta bertsolari ta poetak —musika ta beste arteak albora itxirik— ez ete dautsoe asko be erriari zor? Onengandik ez ete ditu jaso ta artzen zenbait jazokun, esaera ta idurikizun? Bertsolariak adierazten dau geienik erriaren izatea, olerkariak azaldu ta abesten ditu edertoen gure gizartearen naigabe ta pozak. Ezin daikegu olerkaria erriaren arimeagaz dauan loturatik banandu. Bebiltz biak, zelaiko lora-buru bi iduri, alkarrekin dantzari.

### Mugatzea

Poetak gizarteagaz dauan ar-emonari buruz ez dira gauza eder gitxi arrotu ertilarien artean. H. A. Taine frantsesak, esaterako, *Philosophie d'Art* idatzi eban eta arte-mota edo klase askotxo aztertuta gero, landara bat bizi dan inguru ta giroaren mende dagoala autortu ondoren, gizonak asmautako lana, arte-lana be, ezpirituren egoera orokorrez eta inguruan dituen oituraz mugatua dagoala diño.

Zelan egiten ete da mugatze ori? Zek esitzen ete ertilaria? Zek murrizten dautso askatasuna? Iru beso eragille aitatzen daukuz prantses idazleak: errazea, ingurua ta bizi-unea dira iru besuok. Euskalerriko euskaldunak, errazak erantsia, badau sortzetiko zerbait esan-eziña, arnasten dauan aizeak lez, zerbait berezia egikeran, idazkeran, izkeran igart-erazten dauana. Prantses errazako bat eta euskalduna ez dituzu iñolaz be ainbateko, ez pentsakeran ez idazkeran. Guk geure ingurua dogu euskal lurrian, geure-geurea dan giroa, ez geiago edo gitxiago, baiña geure giroa, gorpuzkera bat lez zeozer dana. Onak bakarrik doai mordoa dakarsku beste erriak ez lakoa. Orrez gaiñ, bizi garean momentuak be, istori-gurpillak bere itzuli ta iraulian, beti laga oi dousku zerbait jakingarri yakuna. Indar onein kimu mardula da olerkariaren aur sendoa.

Ezin ukatua da au be: izatean ondo josia dakargula indar ixilla enda ta erri batekoak, zer askotan beintzat, bateratzen gaituna; izatez geuri dagokigun erdia, izpillu garbi antzera, begi aurrean jartzen daukuna, naiz kultura esparruan naiz gizartezkoan, naiz siñismen eta politikuan; ortik datorkiguz daukaguzan ekandu ta oitura bardiñak, ortik baita bardin samar pentsatzeko ta sentitzeko era berezia; ederra jaso ta sentitzeko modua be ez dogu erri guztiok bardiña, era bate-

koa. Musikan, adibidez, andaluziar batek ez ditu euskal kantak eta dantzak guk lez sentitzen, ezta guk be areinak eurak bezela.

### Bere legekoa

Inguruko giroak zer esana bai dau olerkariagan, olerkariak berez ez ete dautso ezer adierazten inguruko giroari? Nik baietz uste. Olerkariak, naiz-eta erri-barne bizi, errian murgildua noski, ba-dau bere asmamena, ta indarrez jantzia izan be, eta asmamen orren zatirik beiñena, gurenena itxi oi dauku bere idaz- naiz oler-lanetan; egia esateko, oiturak asko dagi, baiña beregandik, olerkariaren errai-mintzetatik urtena inguruak emona baiño naikoa geiago da. Orixegaitik ezta olerkian dagoana gizarteko giroa bakarrik; eragiña bai, baiña osotasuna egillearen asmamenari zor yako. Egiaz poeta danak berak sortu ta jaiki daroa leen etzan giroa, berak emoten dautsa gauzeari arnasa barri baten edertasun guztikoa. Gogora Lizardi, Lauaxeta,...

Lo naiz erdi-illik dagoan erria itxartzeko, bazter itxitako izkuntza bat suntsi-zoritik salbetako, asaba zarrena nunbait, «gizon ale baten esku naroak» asko be asko dagike. Lizardi'k idazten dau: «Olerkari guren oiek eztira bakar soillean azten, gure Aizkorri zelai lautsetik bulartu ez antzo; beti ditute olerkari zeeagoak aintzindari ta laguntzat; beti, bil-aldean, muño ta mendixka sail bat. Txikion giroberotzea gabe, sortzerik bai al lukete aundiak?» (*Itz lauz*, 1934, 37).

Argi ta garbi esateko, olerkariak edo idazleak aizatu bear dauz gaiak, erriari dagokiozanak batez be; bedi nainoz ta nun-nai olakoaren asmo ta jomuga erria obetzea, eskolatzea, bere legeak, kantak, oiturak eta abar goretsi ta indartzea. Ortarako poeta bera be ez bebil bakarrik, bide jakiñez, erriarentzat, argi, bero ta maitale baiño. Txabux apartekoz agertu oi dira askotan olerkariak, legegizon eta epai-karien antzean, eta izan be gizarteak jantzi-azo dautson soin-gaiñekoa dagokio egokien olerkariari. Eta izen au emon daikeogu: «Olerkari gizartetua». Zergaitik izen ori? Lagunarteak berotua izan bear dau poetak, erriaren auzi, kezka ta korapilloak beste iñok baiño barru-aiño sartuak eroan bearra daukalako.

Oar au be. Gertakari bitxiak jazo oi dira-ta, olerkari txikiak sarri —bardin idazleak be— aundiak baiño urrago bizi oi dira erriagandik. Biak, alan be, aundi ta txiki, saiatu bearrean dagoz berenetik zerbait gitxituz edo apal-etsiz, erriari al bestean lagundu ta biotza

irabazten, onen izatea eskolatu ta txukunduz; gizartean txertatu bear dabe biak, epaillean madari-ondoak lez; biak bataz beste erriaren bizi-tankeraz kezkatutrik bizi. Gizarteak daukazan zerakaz baliatu beara dau, leena, oraiña ta geroa buztartzen alegiñak egiñik. Izan dedilla olerkaria danen aurrelari.

Onek argi erakusten dauskunez, esan dogu, gizarteak beti mo-gatzen dau olerkaria neurri aundi batean, eta baldintzaz esitua go-ratzen da oler-sortzearen askatasuna. Gaiñ daroan txabuxa gizarteak leporatutakoa dau, eta ez yako errez bere ekinetan txabux orrek ipiñ dauksazan oztopoetatik apur bat be alde egitea. Norbaiten agint-ma-kurpean beti. Inguruak ezarrita, eskolatze berezia dau bakotxak, beitu olerkariak be; aldi berean bere nortasuna dau idazleak, dudarik bage. Biak, ba, gizarteak eta olerkariak aparteko zillua jarri oi dautsoe oler-lanari, naiz onena izan naiz arena.

### Erriaren otsegille

Ortiz, literatura —olerkia emen— erriaren adierazpen dala di-nogunean, egi-egia esan nai ba'dogu, erdizka baiño ez diñogu; ertilan-baten, erriaren zirkin-zulo naiko geratzen da adierazo barik. Litera-turak, adibidez, erriaren zatiño batzuk besterik ez dauz jorratzen. Ida-leak, gaiñera, berak ikasi ta ulertzen dituan eran, bere nortasunaren galbaetik igaro bezela emoten ditu gauzak eta gertakariak. Baiña da-nak? Ez ete da ezer ixillik gelditzen? Oba ez! Esanak baiño aski geiago, oi bezela.

Olerkiak —musikak, eresiak, dantzak, pinturak eta beste erriak oro-bat— jaso ta duindu egiten dau gizartea, erria, bere mailla gu-tietan. Ertilariak, izan be, ortan jardun bearra dau. Aren lanak, eder-lanak, erria eskolatu, eder-zaletu ta aunditu daike, beara konturatu bage sarri askotan. Garai jakin bateko gizartea zelako izan zan jak-i-teko, garai artako arte-giroa aztertu ta ikastea besterik ez donu bea. Orixegaitik edo, iñoiz esan da arte-egille dogula gizartea. Aldi bako-txak dau bere aoxuri ta gustoa; eta au ez ete ertilariaren lana edo-ki, ausnartu ta eritxi emoteko bideetatik bat? Ba-dozu beintzat go-raiaren zerbait, eta ez edozelakoa.

Azaldu nai doguna erakusbide bateren bitartez obeto adierazteko, nik uste. Araiñegun —1980-2-7'an— lantxo au osotzen niarduna, arrastian, eguraldi gozo, eguzkitsua zala-ta, ibiltalditxo bat egiten joan

nintzan. Eguzki ta itzal arteko bide-zidor atsegingarriz niñoian. Ezker-eskuma altz-lizar, aretx eta saratz gaiñetan, atergabeko txori kanta. Ixillik oro; zearka doan errekastoren polpol eta ulu mea, zorarazten nindun. Olerki liburua neroian esku artean, baiña ezin neban ezer irakurri: izadia neban idaztirik lilluragarriena. Geldi, pentsakor eta biotz-ikara, nengoala, atzetik etorkidan adiskide bat —txiribogiña be-ta—. —Kaixo, lagun! —diraust, loturik—; toki ederra, ezta? —Bai, orrelaxe dozu; errekondu au, uda naiz negu, beti yat zoragarri. Eta bidearen apaiña, txorien abesak, errekatxoaren murmur etzia... aitatu neutsazan. Baiña ni alegindu arren, adiskideak ez eustan olako ezer be ulertzen. Azkenez, nire eder-senari muzin egiñik, onela bota eus-tan: —Au guzti au baiño ederrago duzu ardao-zurrutada bat. Arri-ta belarri gelditu nintzan. Gero, aurrera egiñaz, kolkorako esan neban: «Or, olerkari, zure lana!»

Ortxe egiatzko olerkariaren lana, idatzi ariñez ta liburuz. Ez da erreza liburu batek gizartean euki leiken eragiña, itzala ta ukondoa neurtzea. Bardin esan daikegu kuadro batek naiz musika-lan batek, noraiñokoa dan gizartean jalgi-azo dauan autsa, arrakasta. Ertz asko aztertu bear emen be, itaunari ganorazko erantzuna emon al izateko. Maite dogun pertsona bat, esaterako, ez dogu ain azkar geuga-natzen; ez beintzat iru edo lau itzez, egunetako eta illetako artu-emon miñaren bidez baiño. Dala gaztea dala zaarra, pertsona bat geure eretxira makur-azteko, jardun askotxo, izki-mizki ta maiña naikoa bear: alperrezko itz-solas mordoaren ekarria da biotz-irabaztea; ozto-porik ba'daurki bidean mendi beera datorren ur-turrustak, itzul-ingu-ruko asko egiten ditu eragozpeneran oldarra nundik gaindu asmau eziñik, gero alan be zuurki alboratzen dau aren mukerkeria.

### Zuzendua ete da olerkaria?

Olerkaria ez doakigu buru-utsik; ideiaz beterik daroa geienez beintzat burua, ta sentipenez biotza. Adimenaren argiz indar-azten dau biotza; eta bion frutu lez or daukazu poema bipilla; bai, ez uka, poema orretan bolbolka dagoz pentsamentuak, irudi bikaiñez jantzita, eta bizi-bizi sentipenez be. Literaturak, diñoenez, naitaez egon bear dau ideien eraginpean, alako edo olako ideien eraginpean, baiña beti morroi lez ugazabaren zerbitzuan.

Beste kontua dozu, orraitino, nik zuri kanpotik ibilbide bat ezar-

tea. Zuk naitaez urratsak emongo dozuz, zuk neuk nai dodan bidea, loi naiz garbi, artuko dozu; neure eritxia izango zurea, neure mirabe izango zara. Zuzenduriko arte baten arriskua Platon'ek berak ikusi ta erabagia zala ba'diñogu, or ezta bape guzurrik. Gaztedia galtzeko arriskuan jartzen eban poetarik, ez literaturarik ez eban nai arek bere gurtzarrean. Ak moral-barrutian egin ebana, ederkeraren izanean burutu nai dabe gaur ez gítzik.

Gaur izan be Bertold Brecht Alemania'n, Maiakowsky Errusia'n, Neruda Txile'n, iru jainko nausi bakarrik aitzeko, onexek ei dira orcz-gaiñeko olerkari ta idazle, gorago jaso-eziñak: edo-ta gurean G. Aresti. Eta, egia, literatur aintzindari dira. Baiña eurok bakarrik? Eder be, euron ederkerera soilki? Artista orreïn egitarauetz jokatu bear-ko beste guztiok? Orreïn ideolojia, itsuan, artu bearko ete? Makiña bat dira orixe gura dabenak. Eta gure askatasuna? Mingaiñean bai ta egitetan ez?

Goethe'k onela: «Poeta, politikan sar nai dozu? Alderdi bati izena emon eta bertan bazkidetu? Poeta lez galdua zara geroztik. Egiozu agur ezpirituaren askatasunari, agur bai erdi-unean begiak jar-teari; eta bestera, tira egizu belarrietaraiño ezpiritu estuaren eta ezin-ikusi itsuaren kapusaia».

Emen beraz ezpata biren tartean aurkitzen da olerkaria: ezin da alderatu ez bera ez bere lana bizi dan gizartetik, eta alan eta guzti be aske izan nai; politika sare barruan bildurik idoroten da, besarkatu dauan alderdiaren ideia ta pentsakeraz bildua nunbait. Eta geroztik nausi orren, zuri naiz gorri, goralpenetan ari izan bear. Ez da gozoa iñoren erpapean zirkin egitea. Nun dok, olerkari, eure eskugoa? Nun eure nortasuna?

Gaur, zoritxarrez, olako naiko da bazterretan. Marx'en irakatsiz asetzen diranen artean, aize orreik txistu dagie; edo-ta beintzat, orain-tsu arte, ego-aize iduri, lar zaratatsu ibilliak ditugu. Baiña olan jokatu ta olan jokatzeko iskanbiltsu otsegin arren, olerkaria, azal ta mamia, aurretik ezarrítako filosopi-erreten jakiñez zuzentzea, ez dirudi jokabi-de egoki ta zuzena; ez dirudi giza-lan askeak ori eskatzen dauanik.

*Aita Onaindia*

## ARBASOEN LORRATZEAN

Historiaren haria, gure soka-dantza hau aurrera joan ala gaurkotatuz orritu ohi gara, baina baita lehenaren altzo sakonean ahazturik utzi ere giza-izatearen zatirik unkigarrienerarikoak. Lehena ahaztuz turratzen dugu bide berria. «Orain ez dago lehengorik», esan ohi da aspaldiko kontu zaharrak aipatzerakoan. Eta tristuraz esan ere, zatikatika geure izatearen zerbait atzean utziko bagenu bezala. Egia esan, gaurko harian joateak, besterik gabe, ez du ondo goazenik adierazi nahi. Ez, sasi-gaurkotasun hau ez da desiragarri gertatzen gehienetan. Batzutan, «gaurkotasuna» deritzagun hori, haizearen gorabeheraz alda daiteken huskeria arin bat besterik ez da izaten; beste batzutan, berriz, berezko jatortasuna itotzen duen artifizialkeria.

Galerarik nabarmenena euskal umorearena izan ote den nago. Gure elizpeak, taberna, plaza eta etxeke sutondoak lekuko. Hamaikato berriketa goxo; makina bat ipuin eta esaera jator, euskararen aberasgarri, erne izan da toki horietan. Herri-jokaeraren eredu garbi bilakatu dira tokiok. Bizitzako gorabeheren gazigarri ta gozogarri. Euskal harremanen hitzetik hortzerako jario bizi eta oparoaren sorleku; gure ahozko literaturaren iturbegi.

Orain, denborak eta gizarteak beren legea ezarri digute ta, bel-durrez ez baina kezka eta tristuraz dakusagu gure berezkotasunaren alderdi baliotsu bat, euskal kultura jatorra ernerazten zuen inguru-giroa suntsitu dela ia. Gaurkotu behararen gaurkotu beharrak galdu egin digu lehenaren lekukotasun berezia, euskararen bizitzarekin ere zer-ikusi aparta zuena. Gaur eguneko bizimoldeak teknikaren indar-